

Getxoko Liburu Azoka bihar hasiko da

GETXO.- Bihar, apirilak 20, Getxoko Liburu Azoka hasiko da. Datorren astelehenera arte, liburuak kaleratuko dira Getxoko udal liburutegien eskutik, irakurtzea bultzatzeko asmoz. Algortako Geltokia plazara hurbiltzen direnek Getxoko hamaika liburu-dendaren postuak bisitatzeko aukera izango dute, literaturaren azken nobedadeak, komikiak, haurrentzako ipuinak edo aukerako liburuak erosteko. Ohi bezala, erosketa guztietan %10eko beherapena egingo zaie erosleei. Liburu Azokaren ordutegia honako hau izango da: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Bestalde, Kultur Etxeko liburutegiek beren gunea izango dute azokan. Horrela, irakurleei liburuak mailegatzeko aukera eskainiko zaie, eta euren etxeetara eraman ahal izango dituzte. Halaber, umeei eta gazteei komiki eta ipuin interesgarriak aurkituko dituzte bertan irakurri ahal izateko. Aurtengo, zirkoaren mundua izango du ardatz nagusi Liburu Azokak. Hori dela eta, gai hau oinarri hartuta, hainbat ekitaldi izango dira (tailerrak, jolasak, ohe elastikoak, barre-ispiluak...).

Honi guztiari kontalariak, ohiko jendaurreko irakurketa (ikaste getxotarren eskutik) eta argazki zaharren erakusketa gehitu behar zaio. Jendaurreko irakurketa datorren astelehenean, apirilak 23, egingo da eta bertan 7 ikastetxetako 290 bat ikasle parte hartuko dute, goizeko 10:00etatik aurrera. Bestalde, argazki erakusketan Getxoko hainbat garaitako irudiak izango dira ikusgai eta San Nikolaseko liburutegiko tokiko bildumakoak dira. Horrela, bada, lau egunetan zehar, Algortako Geltokia plaza liburua protagonista duen gunea bat izango da. Bertan, gainera, publikoak giro ludikoaz gozatu ahal izango du egingo diren ekitaldiei esker.

Aurtengo azokan bi nobedade izango dira salgai: Mikel Martinezen "Photoalbum: Getxoko Jaiak 2006" eta Pilar Sarnagoren eta Angel Moruaren "Bilboko Itsasadarraren fatxadak: El Abra" argazki-liburuak, hain zuzen ere.